PLAZA BERRIKO KOMUN PUBLIKOEN GARBIKETA- ETA MANTENTZE ZERBITZUA

BALDINTZA TEKNIKOAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plaza Berriko komunen garbiketa- eta mantentze-zerbitzua kontratatzea. Kontratu hau gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei erreserbatua dago (SPKLren 4. xedapen gehigarria).

2.- EXEKUZIO EPEA

Kontratua sinatzen denetik bi urteko epea izango du. Kontratua beste bi urtez luzatu ahal izango da urtez urte.

3.- AURREKONTUA

Gehienezko lizitazio prezioa hilabeteko 2.101,12€ + %21 BEZ (441,24€) izango da.

Txotx garaiko hiru hilabeteetan (otsaila, martxoa eta apirila) gaueko zerbitzu osagarria behar izatea aurreikusten da. Udalak zerbitzu osagarri hori eskatuz gero bakarrik emango da zerbitzua. Zerbitzu osagarri horren gehienezko lizitazio prezioa hilabeteko 475,39€ + %21 BEZ (99,83€) izango da.

Guztira: 53.279,22€ (BEZ gabe) 2 urteak, aukerako zerbitzu osagarria barne.

4.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Ordutegia:

- Astelehenetik igandera, urteko 365 egunak: ◦ Irailaren 22tik ekainaren 20ra:
  - Igandetik ostiralera:
- 9:30etik 13:00tara eta 16:00etatik 19:30ra . ▪ Larunbatetan:
- 10:30etik 13:00tara eta 17:00etatik 21:30era.
  - ◦ Ekainaren 21etik irailaren 21era:
    - Astelehenetik igandera:
- 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 21:00etara.
- Txotx garaiko gaueko zerbitzu osagarria:
  - ◦ Otsailaren 1etik apirilaren 30era:
    - Larunbatetan:
- 21:30etik 01:00etara.

Zerbitzuaren zenbatekoa:

- Zerbitzua doakoa izango da erabiltzaileentzat.

Langileak:

- Baldintza teknikoak betetzeko beharrezkoak direnak.
- Ordezkapenak ezgaitasunen bat duten pertsonek egin beharko dituzte.

Baliabideak:

- Garbiketarako beharrezkoa den materiala Hernaniko Udalak jarriko du esleipendunaren esku.
- Esleipendunak proposatu ahal izango dio udalari zerbitzua emateko edo hura hobetzeko egoera aproposean aurkitzen ez diren baliabideak berritzea eta beharrezkoak diren mantentze eta konponketa lanak egitea. Proposamena onartuko balitz, udalaren kontura egingo lirateke berrikuntza edo konponketa horiek.

5.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Enpresa lizitatzaileek ondorengo atalean zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko dute.

- Proposamen ekonomikoa.